

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2987

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 18koa, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusiarena, Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko 2025-2026 aldirako bekak iragartzen dituena.

Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuak arautzen ditu Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak (2019ko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 23. zk.).

388/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakartzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa. (2024ko abenduaren 2ko EHAA, 234. zenbakia).

Dekretu horren 5.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko 2025-2026 aldirako bekak iragarri behar dira. Koordinaziorako eta Proiektu Estrategikoetarako idazkari nagusiaren 2025eko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, Lehendakartzaren 2025eko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana onartu zen. Dirulaguntza horiek Lehendakartzaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoan sartuta daude, eta Koordinaziorako eta Gizarte Komunikaziorako idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu zen; hemen eskuragai: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/proiektua/lehendakartzaren-2024ko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/>

Koordinaziorako eta Proiektu Estrategikoetarako idazkari nagusiaren 2025eko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, Lehendakartzaren 2025eko Dirulaguntzen Urteko Plana onartu zen.

Iragarritako bekek Kanpo Ekintzaren eremuan gazteen prestakuntza bultzatzen eta nazioartekotzearen arloko adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzen laguntzen dute. Azken hori da Lehendakartzaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoaren helburu estrategikoetako bat.

Horri jarraikiz,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Gazteak kanpo-harremanen eremuan prestatzeko hamalau beka iragartzeko deialdia egitea, hiru beka-modalitateetan: Europako Gaiak, Kanpoan den Euskal Komunitatea eta Kanpo Harremanak eta Organismo Multilateralak 2025-2026 aldirako.

Deialdi hau Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuan (2019ko otsailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 23. zk.) eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoaren arabera arautuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administra-

zioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Denek horren berri izan dezaten, hemen argitaratuko da: www.euskadi.eus

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 18(a).

Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia,
ANDER CABALLERO BARTUREN.

I. ERANSKINA

EBAZPENA, 2025EKO EKAINAREN 18KOA, KANPO HARREMANETARAKO ETA EUSKADI GLOBALEKO IDAZKARI NAGUSIARENA, KANPO HARREMANEN EREMUAN GAZTEAK PRESTATZEKO 2025-2026 ALDIRAKO BEKAK IRAGARTZEN DITUENA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko 2025-2026 aldirako hamalau beka iragar-tzeko deialdia.

Bigarrena.– Beken modalitatea eta kopurua.

1.– Iragarritako beka modalitate hauetan banatzen dira:

– Europako Gaiak: sei beka.

– Kanpoan den Euskal Komunitatea: lau beka.

– Kanpo Harremanak eta Organismo Multilateralak: lau beka.

2.– Eskatzaile bakoitza iragarritako beka-modalitate bakarrean aurkeztu ahal izango da:

Hirugarrena.– Onuradunak.

Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 2. artikuluan jasotako eskakizunak betetzen dituztenak izan ahal izango dira beken onuradun.

Nolanahi ere, dekretu horren 2.e) artikuluko eskakizunari dagokionez, ezin izango dira beka hauen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.h artikuluan aurreikusitako egoeraren baten dauden pertsonak, sexu-bereizkeriagatiko bereiz-keriak eragindakoak barne, bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin.

Laugarrena.– Eskabideak eta eskakizunak egiaztatzea.

Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira eskaerak eta eskatutako agirien egiaztatpena.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.1 artikuluan xedatutakoarekin, eskabidea egiteko unean, eskatzaileak, deialdiaren ebazpenean ezarritako eredu normalizatuaren parte izango den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, adieraziko du, batetik, dekretu horren 8.5 artikuluan a) eta b) apartatuetan eza-rritakoa, eta bestetik, ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen penalik nahiz administratiborik, eta ez duela horretarako desgaitzen duen lege-debekurik, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin.

Bosgarrena.– Beken destinoak.

1.– Europako Gaietarako beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- Bi beka Euskal Autonomia Erkidegoaren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, Bruselan.
- Bi beka Euskal Autonomia Erkidegoaren Frantziako Ordezkaritzan, Parisen.

2.– Kanpoan den Euskal Komunitatea beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- Beka bat Euskal Autonomia Erkidegoaren Argentina eta Uruguaiako Ordezkaritzan, Buenos Airesen.
- Beka bat Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritzan, New Yorken.

3.– Kanpo Harremanak eta Organismo Multilateralen beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- Beka bat Euskal Autonomia Erkidegoaren Txileko Ordezkaritzan, Txileko Santiagon.
- Beka bat Euskal Autonomia Erkidegoaren Kolonbiako Ordezkaritzan, Bogotan.

Seigarrena.– Zuzkidura ekonomikoa eta ordainketa.

1.– Iragarritako beka-programaren kreditu osoa 288.000 eurokoa da. Horietatik 144.000 euro 2025eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 144.000 euro 2026ko konpromiso-kredituari.

2.– Honako hau izango da beken zuzkidura ekonomikoa:

- Vitoria-Gasteizerako diren beka bakoitza, 16.000 euro gordin.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpoko Ordezkaritzetarako beka bakoitza, 24.000 euro gordin.

3.– Bekak hiru ordainketetan ordainduko dira:

- Lehenengo ordainketa: beka onartu ondoren egingo da, esleitutako laguntzaren % 50 (2025).
- Bigarren ordainketa: bekaz baliatzen hasi eta lau hilera egingo da, esleitutako laguntzaren % 20 (2026an).
- Hirugarren ordainketa: gainerako % 30a, beka amaitu ondoren egingo da, bekadunek dagoen amaierako txostena aurkeztu ondoren eta bekadunaren aprobeitxamenduari buruzko aldeko txostena, dagokion Zuzendaritzak emandakoa, egin ondoren (2026an).

4.– Jasotzen diren zenbatekoak zergaren eta Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera lego-kiekeen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) erregimenari lotuta egongo dira.

Zazpigarrena.– Non, nola eta noiz aurkeztu eskabideak.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuan jasotako eskakizunak betetzen dituztenek prozedura honetako izapide guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragai: <https://www.euskadi.eus/servicios/0073110>

3.– Behar bezala betetako inprimaki normalizatua erabiliz egingo da eskaera; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren egoitza elektronikoa dago eskuragai inprimaki hori: <https://www.euskadi.eus/servicios/0073110>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak erabiliz egin behar da eskaeren identifikazioa eta sinadura; hemen eskuragai: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkariak inskribatuta egon beharko du Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Ordezkarien Erregistroan, hemen eskuragai: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak egiteko, Euskadiko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dago-kion datu-basean jasota egon beharko du.

Alta emateko edo hirugarren interesdunen datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak hirugarrenentzat emandako erregistro telematikora jo beharko da, hemen eskuragai: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez egin beharko dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

6.– Eskabideak aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, interesdunek inprimaki-eredua bete behar dute; hemen eskuragai: <https://www.euskadi.eus/servicios/0073110>

Eskaerak posta-helbide honetara bidali beharko dira, aukeratutako beka-modalitatea adierazita:

Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza.

Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Hauek dira eskaerak aurkezteko aukerak: Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusia; Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpoko Ordezkaritzetan; Zuzenean-Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arretarako bulegoetan, aurretiazko hitzorduarekin bakarrik, zeinak helbide honetan eskatu ahal izango diren: https://www.euskadi.eus/web01-ejqmatic/eu/zuzenean-webbooking/#/?lang=eu_es, edo hitzordua eskatzeko edo deuseztatzeko 945 01 90 00 telefono eskusiboan, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako era batean.

7.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.– Hautaketa-batzordea.

1.– Hautaketa-batzordeak Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11. artikuluan jasotako eskakizunak beteko ditu.

Dena den, bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua xedatzen duenarekin, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea bilatuko da hautaketa-batzordea osatuko duten kideak izendatzean:

2.– Hauek osatuko dute hautaketa-batzordea, eta beka-modalitate bakoitzaren merezimenduak baloratuko ditu:

– Asier Areitio Ibarlucea, Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen zuzendaria, batzordeburua izango da. Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusia den Estibaliz Urcelay Erguidok ordeztuko du.

– Mikel Anton Zarragoitia, Europako Gaien zuzendaria. Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria den Ibon Mendibelzua Madariagak ordeztuko du.

– Ziortza Olano Astigarraga, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria, Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria den José Manuel Meaurio Antónek ordeztuko du.

– Ainara Jauregi Rekondo, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria. Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria den Rafael Hueso Vicentek ordeztuko du.

– Benan Oregi Iñurrieta, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria. Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria den Ibon Mendibelzua Madariagak ordeztuko du.

– Elena Iturrate Vizcargüenaga, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria, hautaketa-batzordeko idazkaria izango da. Kargu hori hutsik badago absentzia, gaixotasuna edo legezko beste arrazoi bat dela tarteko, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria den José Manuel Meaurio Antónek ordeztuko du.

3.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hautaketa-batzordeak Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiko aholkulari baten laguntza izango du, ahotsa izango duena, baina botorik ez.

Bederatzigarrena.– Balorazio-irizpideak.

1.– Beka-modalitate guztietarako balorazio-irizpideak Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoak dira.

2.– Dekretu horren 12.1.d) apartatuan, ingelesaren ahozko eta idatzizko ezagutzari gehienez 15 puntu emango zaizkio, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duen maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretuan xedatutakoarekin, eta irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumak ezartzen da.

3.– Dekretu arautzailearen 12.1 artikuluan, atzerriko beste hizkuntzei gehienez 10 puntu emango zaizkie, B1, B2 edo goragoko ezagutzak egiaztatuz gero, bat etorriaz Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duen maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretuan xedatutakoarekin, eta irakaskuntza horietako oinarritzko A1 mailaren, oinarritzko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumak ezartzen da.

4.– Aipatutako 12.2 artikulua xedatutakoaren arabera, aurreko irizpideak baloratzeko, hautaketa-batzordeak dagozkion probak egin ahal izango ditu.

Hamargarrena.– Probaren modalitateak.

1.– Hautagaiek idatzizko proba bat egingo dute, aukeratzen duten beka-modalitatera egokitu-tako 15 galderako test bat. Hogeita hamar minutu izango dituzte proba hori egiteko. Gehienez 15 puntu emango dira, galdera bakoitzak puntuazio berbera duela, honela:

a) Europako Gaien modalitatea:

- Europar Batasunaren eremu instituzionalari buruzko 5 galdera.
- Europar politikaren aktualitateari buruzko 5 galdera.
- Europar ekonomiaren aktualitateari buruzko 5 galdera.

b) Kanpoan den Euskal Komunitatearen modalitatea:

- Euskal Etxeen eremuari buruzko 5 galdera.
- Euskal emigrazioaren memoria historikoari buruzko 5 galdera.
- Euskal diasporarako programa instituzionalei buruzko 5 galdera.

c) Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen modalitatea:

- Organismo multilateralei buruzko 5 galdera.
- Nazioarteko politikaren aktualitateari buruzko 5 galdera. Ez da Europari buruzko galderarik egongo.
- Nazioarteko ekonomiaren aktualitateari buruzko 5 galdera. Ez da Europari buruzko galderarik egongo.

Hamaikagarrena.– Bekadunen betebeharrak.

1.– Beka jasotzen dutenek Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 16. artikuluan jasotako betebeharrak izango dituzte.

2.– Halaber, aipatutako dekretuaren 16.2 n) artikuluan jasotako betebeharrari dagokionez, beka horien onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetatik eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Hamabigarrena.– Txostenak.

1.– Beka jasotzen dutenek lehen txosten partzial bat aurkeztu beharko dute bigarren ordainketa jaso baino lehen. Txostenean, alderdi hauek zehaztu beharko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko harremanei buruz jasotako prestakuntza; Euskal Autonomia Erkidegoak Nazioartekotzeko Esparru Estrategian (Eus-

kadi Basque Country 2025. Kanpo Harremanen Plana 2025) jasotako lehentasunezko eskualde eta herrialdeekin dituen harremanak, baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpoko Ordezkaritzak dauden herrialdeekin dituenak ere.

2.– Beka jasotzen dutenek bigarren txosten partzial bat aurkeztu beharko dute hirugarren eta azken ordainketa jaso baino lehen. Alderdi hauek jasoko dira txosten horretan: Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzea Europako instituzio eta organismoetan, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzan, eta organismo multilateraletan.

3.– Ikerketa-lana beka amaitu baino lehen aurkeztu beharko da. Ikerketa-lana garatutako beka-modalitateari buruzko gai baten ingurukoa izango da. Lanak gehienez hogeita lau orri izango ditu.

Hamahirugarrena.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 15/2019 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, beka-modalitate bakoitzari dagozkion arloetako zuzendaritza eskudunari dagokio dekretu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea. Horretarako, bekadunaren jarduerak gainbegiratu eta zuzenduko ditu zuzendaritza horrek.

Hamalagarrena.– Ebazpena.

1.– Bekak arautzen dituen Dekretuaren 14. artikulua arabera, Idazkaritza Nagusiko edo Kanpo Ekintzaren arloan eskumena duen Sailburuordetzako titularrak, instrukzio-organoen behin betiko ebazpen-proposamenak ikusita, dagokion esleipen-ebazpena emango du, hiru beka-modalitateen onuradunak, destinoak, bekaren hasiera-data eta, hala badagokio, beka-modalitate bakoitzerako ordezkioak izendatzeko, edo, gai den hautagairik ez balego, hutsik uzteko. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta administrazio-bideari amaiera emango dio.

2.– Bekak arautzen dituen Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, ebazpen hori eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, eta, jende guztiak horren berri izan dezan, www.euskadi.eus helbidean, dagokion urteko deialdia argitaratzen den egunetik aurrera gehienez sei hilabeteko epean.

Epe hori amaitzean, ez bada ebazpen hori argitaratu, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da.

3.– Ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaiera ematen. Ebazpen horren aurka, aurrerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamabosgarrena.– Ez betetzeagatik ezeztatzea.

Antzemanek gero beka ematea eragin zuten baldintzak ez direla betetzen, beka ezeztatuko da, bat etorritz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritako baldintzekin.

Zehatzago esanda, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotzen diren egitateak eta egoerek eragingo dute dirua itzuli beharra.

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

NANa/pasaportea:

Helbidea:

Helbide elektronikoa:

– Ofizialki aitortutako euskal etxeetako bazkideen kasuan:

Euskal etxearen identifikazioa:

Euskal etxeko bazkide kopurua:

– Beka-modalitatea (beka-modalitate bakarrean aurkeztu ahal izango da):

Europako Gaiak

Kanpoan den Euskal Komunitatea

Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen modalitatea:

– Zein destino aukeratzen den:

1) Europako Gaien beka-modalitaterako:

Vitoria-Gasteiz

Brusela, Belgika

Paris, Frantzia

2) Kanpoan den Euskal Komunitatearen beka-modalitaterako:

Vitoria-Gasteiz

Buenos Aires, Argentina

New York, AEB

3) Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen beka-modalitaterako:

Vitoria-Gasteiz

Txileko Santiago, Txile

Bogota, Kolonbia

– Goi-mailako edo graduko unibertsitate-titulua:

– Ikastaroak (gutxienez 50 ordu):

– Hizkuntzak:

– Euskara: (*)

Egiaztatutako maila: B2 C1 C2

(*) Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzekoak eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagiriek egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak salbuetsita egongo dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoak aurkeztetik.

Ingelesa:

Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

Beste hizkuntza batzuk:

Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

III. ERANSKINA

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

– NANA edo pasaporteak.

– Errolda-ziurtagiria, Euskal Autonomia Erkidegoan 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzen duena / Euskal Etxearen ziurtagiria, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bazkide dela egiaztatzen duena.

– Unibertsitateko goi- edo gradu-titulua, eta, hala badagokio, dagokion homologazioa.

– Curriculum Vitae, espediente akademikoa barne.

– Egindako ikasketen ziurtagiriak, izaera ofiziala eta balio akademikoa dutenak.

– Hizkuntza-ziurtagiriak, izaera ofiziala eta balio akademikoa dutenak.

– Medikuziurtagiria, eginkizunak eta betebeharrak behar bezala egitea galarazten dion gaixotasunik ez duela zehazten duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8.3 artikuluko a), b), c) eta e) letretan zehaztutako agiriak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu beka-modalitate bakoitzari dagokion izapidetze-organoak, dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

.....andreak/jaunak

ADIERAZTEN DU:

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren –Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa– 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela dioten egiaztagirien ordezkio izango da zenbait kasutan.

Halaber, bat etorri agindu horren 7. artikuluekin, kasu bakoitzean, pertsona edo entitate eskatzailean, onuradunaren edo entitate kolaboratzailearen zinpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla.

– Ebazpen honetako baldintzen arabera, egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoek dagokienez, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela harik eta emandako laguntza edo dirulaguntza osoki justifikatu arte.

Hargatik eragotzi gabe aurreko apartatuan adierazitakoa, organo-emaileak betebeharrak horien egiaztagiria egiaztatu ahal izango ditu.

– Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

– Lehendik ez jaso izana beka hauek berak edo unibertsitate-tituludunentzako beste prestakuntza-beka batzuk, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

– Ez izatea onuradun edo entitate laguntzaile izateko debekurik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13 artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, edo horretarako legezko inolako debekurik, sexu-diskriminazioagatik izan daitezkeen debekuak barne, bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin.

Lekua eta data:

Sinadura:

V. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra), eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten da datu pertsonalak tratatuko direla eta «Kanpo Harremanetarako arloko prestakuntza-bekak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Arduraduna: Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusia, Lehendakaritza.

Xedea: Kanpo Harremanen eremuko beka-deialdietan parte hartzen dutenen informazio pertsonala kudeatzea.

Legitimazioa:

– Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

– Lege-betebeharrak betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

Hartzaileak:

Ogasun Publikoa.

Gizarte Segurantzako organismoak.

Eskubideak: datuak irispidean izatea, zuzentzea eta ezereztea, eta informazio gehigarrian jasotako beste zenbait eskubide.

Informazio gehigarria. Gure web-orrian kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/141700-capa1-eu.shtml>

Araudia: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

(<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>).

Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-1667>).

_____ (e)n, 20__ (e)ko _____ aren __ (e)(a)n

Eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura: